



Laburpen exekutiboa

Justizia zerbitzu publikoaren
ekosistema eraldatzea



Laburpen exekutiboa

**Helburua da baliabideak
modu eraginkorragoan
esleitzea,
antolaketa malguagoa eta
berritzaileagoa izatea, arau
eta prozedura eguneratuekin,
eta kogobernantza-eredu bat
adostu eta garatzea.**

Abiapuntua

Justiziako Zerbitzu Publikoak 254.000 pertsona ingururen lanari esker funtzionatzen du: epaileak, fiskalak, Justizia Administrazioako abokatuak, prozesu-kudeatzaile eta -bideratzaileak, laguntzako langileak, auzitegiko medikuak, medikuak, teknikari espezialistak, laborategiko laguntzaileak, bake epaileak, Estatuko Administrazio Orokorreko eta autonomia erkidegoetako funtzionarioak, abokatuak, prokuradoreak, gizarte-graduatuak, erregistratzaileak eta notarioak.

Horrez gain, interpretazio- eta itzulpen-zerbitzuak, peritatzea, egoitzen mantentze-eta garbiketa-lanak, ondasunen artxibatzea eta gordetzea, prestakuntza, aplikazio informatikoen garapena edo ekipoen mantentze-lanak egiteko aukera ematen duten langileak ere, besteak beste.

Justizia Administrazioak 700 egoitza judizial baino gehiago ditu lurralde osoan. Justizia Ministerioaren eta justizia-arloko eskumenak beren gain hartu dituzten autonomia-erkidegoen aurrekontu agregatua 4.200 milioi euro ingurukoa da urtean.

Justiziak funtzionatu egiten du. Hala ere, hainbeste profesionalek eta hainbeste baliabidek egindako ahaleginak ez du lortzen herritarrek eskatzen duten emaitza. Inkestek adierazten dute Justiziak dituen bitartekoak ez direla nahikoak eta lehen hiru gabeziak hauek direla: epailerik eza, baliabide informatikorik eza eta langile laguntzailerik eza.

Datuek, gainera, antolaketa-arazo bat erakusten dute. Azken 20 urteetan, Espainiako epaile-kopurua ia % 50 hazi da; Espainia da sistema judizialeko informazio-teknologietako ekipamenduaren indizearen rankingaren liderra, eta langile laguntzaileen nahikotasunari dagokionez, Justizia Administrazioan epaile ez diren pertsonen kopurua Europako batez bestekoaren ia bikoitza da. CEPEJren (Justiziarren Eraginkortasunerako Europako Batzordea) (2018) txostenaren arabera, Espainiako justizia-gastua 79,1 € biztanleko zen, Europako batez bestekoa (64 € biztanleko) baino handiagoa. **Ez da baliabide-nahikotasunaren arazoa soilik, antolaketaren eta gobernantzaaren arazoa ere bada.**

Helburua da baliabideak modu eraginkorragoan esleitzea, antolaketa malguagoa eta berritzaileagoa izatea, arau eta prozedura eguneratuekin, eta kogobernantza-eredu bat adostu eta garatzea. Hori Garapen Iraunkorreko Helburuen eta Next Generation EU funtsen kontzeptu-esparruan egitea.

Zer da Justizia 2030?

10 urteko lan-plan komunada, kogobernantza garatua, zuzenbidezko estatua eta justiziarako sarbidea sustatzen dituena, herrialdearen eraldaketarako palanka gisa. Sistemaren eragin handiena duten edo zaharkituta geratu diren eta jada eraginkortasun gutxi duten puntuetan bakarrik eragiten du. Kontua ez da Justizia Zerbitzu Publikoaren osagai bakoitzean aldaketak sartzea, baizik eta Justizia ekosisteman eragin sistemikoa duten puntuetan aldaketak sortzea.

Justizia Zerbitzu Publikoarentzako Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana zehaztea da Justizia 2030. Justiziaren arazoaren (baliabideak, antolaketa edo

gobernantza) arrazoiei buruzko eztabaida esparru berriari konpontzen da. Antolaketa hobetzeko baliabideak daude, eta kobernatzeko aukera irekitzen da. Hiru arrazoiei batera eta modu elkartuan ekin dakieke. Kontua ez da eredu aldatzea, gaurkoa aldatzea baizik. Eragina handitzea eta gizartearekin eta beste administrazio batzuekin konektatzea.

Helburu orokorra Justiziako Zerbitzu Publikoa eraldatzea da,

irisgarriagoa eta eraginkorragoa egiteko, eta kohesio- eta jasagarritasun-ahalegin komunari laguntzeko.

Nola egituratzen da?

Planak hiru helburu espezifiko lortu nahi ditu, eta horiek, era berean, bederatzi programatan zehazten dira:

HELBURUA I: Eskubideak eta askatasunak erabiltzeko aukera bermatzea.

Herritarrek Justiziako Zerbitzu Publikora iristeko bideak hobetzera zuzendua. Eskubideak erabili ahal izateko, prozedura errazak, argiak, ulergarriak eta eskuragarriak behar dira. Gizarte-talde eta lurralde guztien beharrei erantzuten dietenak, bereziki ahulenei.



Programa: JUSTIZIA ESKURAGARRITASUNA

Herritar guztiek Justiziako Zerbitzu Publikora iristeko egiturazko baldintzak sortzea du helburu programak. Ziurtatuko da pertsona bakar bat ere ez dela baztertzen arazo ekonomikoak, adin-edo sexu-arazoak direla-eta, eta gizarte eta kultura aldetik hurbilduko da Zerbitzua, hezkuntza etapetako hizkuntzaren eta zeharkako prestakuntzaren bidez.



Programa: JUSTIZIAKO PROFESIONALAK

Proiektuen helburua da operadore juridikoen prestakuntza hobetzea eta horiei segurtasuna ematea Justizia eraldatzeko prozesuan. Eraldaketa horrek jarduera profesionala aldatzea dakar. Esparru profesionala birdiseinatu beharra dago, ez bakarrik tresna digitaletara, telelanera eta epaiketa telematikoetara igarotzeagatik (gaitasun berriak eskatzen dituztenak), baita aurkezten zaizkigun erroka berriak direla-eta ere.



Programa: GIZARTE-ERREALITATE BERRIAK

Talde ahulenei Justizia eskuratzeko baldintzak erraztea eta Justiziako Zerbitzu Publikoa gizartearen errealitatera etengabe egokitzen dela bermatzea da puntu nagusia. Digitalizazioak irisgarritasuna hobetzen du gehienentzat, baina gutxiengo ahulenarentzat eta gizarte “analogikoarentzat” murrizten du, bereziki adinekoentzat. Kolektibo horientzako arreta presentziala indartu behar da egoitzetan.

HELBURUA 2: Justiziako Zerbitzu Publikoaren eraginkortasuna hobetzea.

Eraldaketa digitala antolakuntzaren eta prozesuen hobekuntzan gauzatzen dela ziurtatzera zuzendua. Lortutako eraginkortasuna denbora urritzean eta herritarren gogobetetasunean neurtu ahal izango da, baina baita inbertitutako baliabideen esleipen eraginkorrean, ingurumenaren gaineko eraginean eta datuak kudeatzeko gaitasunean ere.



Programa: ANTOLAMENDU-ERAGINKORTASUNA

Programaren muina antolaketa aldatzea da, Auzialdiko Epaitegien eta haien euskarri den Bulego Judizialaren bidez. Espainiak 3.627 epaitegi ditu, eta horietako bakoitzak epaile edo magistratu bat, Justizia Administrazioiko abokatu bat eta Justizia Administrazioaren zerbitzura dagoen langile-kopuru aldakorra (zortzi pertsona inguru) ditu. Antolakuntzaren eraldaketaren helburua da 431 instantzia-auzitegi izatea (bat alderdi judizial bakoitzeko), non epaileak, Justizia Administrazioiko abokatuak eta laguntzaileak elkartuko diren, esleipen iraunkorra gerta dadin.

Eraldaketari esker, Bulego Judiziala terminal berri batekin zabaldu daiteke: Justizia Bulegoa udalerrietan. Zerbitzu publikora sartzeko leihatila berriak, landa-eremuan Justiziara iristeko.



Programa: PROZESU-ERAGINKORTASUNA

Programa honen bidez, prozesuak arindu, Justizia Administrazioan eztabaidak konpontzeko bitarteko egokiak (MASC) arautu eta gehiago ezarri, eta exekuzio-sistema hobetu nahi da. Era berean, juridikoki zaharkituta dauden eta Europako esparruarekin lerrokatuta egoteari utzi dioten prozesu-arauen egokitzapenari ekingo dio.



Programa: ERAGINKORTASUN DIGITALA

Programaren muina digitalizatorako arau-esparru berri bat sortzea da, Justizia Administrazioaren eraldaketa digitalerako lege-oinarriak ezarriko dituen, eta gaur egungo araudia, 2011tik indarrean dagoena, ordezkatu egingo duena, datuetan oinarritutako informazio-arkitektura berri bat izan dezan, aldi berean prozeduren tramitazioan segurtasun juridiko digitala bermatzen duen bitartean. Zuzenbidezko estatua ingurune digital berrian sustatzea da helburua.

HELBURUA3: Iraunkortasunari, kohesioari eta kogobernantzari laguntzea.

Justiziako Zerbitzu Publikoak lagundu egin behar du Europaren eraikuntzan, herrialde-proiektuan, ekonomiaren berreskurapenean, ingurumen-justizian, trantsizio ekologikoan eta zuzenbidezko estatuan sakontzen. Programek Justizia eta herrialdearen eraldaketa lotzen dituzte.



Programa: HERRITARRENTZAKO ZERBITZUAK

Programa osatzen duten proiektuek Justiziako Zerbitzu Publikorako banakako sarbidea beste Administrazio batzuenarekin lotzen dute eta zerbitzuaren kalitatea bermatzen dute. Digitalizazioak udaleko, autonomia-erkidegoko eta estatuko datuen ekosistema administratiboa sortzea errazten du. Helburua elkarreragingarria (erregistroak arazorik gabe atara ahal izatea), eta eraginkorra izatea da. Ez dira sistema berriak garatu nahi, baizik eta dagoeneko funtzionatzen dutenak egokitu.



Programa: GIZARTE JASANGARRIAK

Justiziako Zerbitzu Publikoak EBn zuzenbidezko estatua sakontzeko, herrialde-proiekturako eta ingurumen-justiziarako egiten duen ekarpen orokorra ziurtatuko da. Nazioartean, beharrezkoa da Europako eraikuntzarekin lotzea, Europako beste herrialde batzuetan ondorio positiboak izan ditzakeen bide batean.

Justiziako politika publikoak trantsizio ekologikoarekin lotuz (legedia, erakundeak eta egoitzak), eta Justiziako Zerbitzu Publikoa eta haren aktiboak gure gizartearen larrialdi nagusietako bat den eraldaketa eta berreskuratze ekonomikora bideratuz.






Programa: ERAKUNDEEN KOORDINAZIOA ETA KOHESIOA

Programaren muina, inplikaturako erakundeen artean kogobernantza-arkitektura progresiboki garatzea da, Justizia Administrazioa kalitatezko zerbitzu publiko eta eraginkorragoa izan dadin.

Programak abian jartzen dira **proiektuen** bidez (27), eta horiek, era berean, **azpiproiektuetan** banatzen dira, zeinen kopurua beharren arabera aldatzen den eta, "hasiera batean", 47 direnak.



1. HELBURUA: ESKUBIDE ETA ASKATASUNAK ERABILTZEKO AUKERA

PROGRAMAK	PROIEKTUAK	AZPIPROIEKTUA
 JUSTIZIA ESKURAGA-RRITASUNA	1. Sarbide unibertsala	1.1 Doako Laguntza Juridikoaren eta Ofiziozko Txandaren sistema eraginkorraz 1.2 Defentsa-eskubideari buruzko legea
	2. Hizkuntza irigarria	2.1 Hizkuntza juridikoaren argitasuna 2.2 Hizkuntza-normalizazioa Justizia Administrazioan
	3. Oinarrizko lege-hezkuntza	3.1 Desparekotasunak konpontzeko hezkuntza
 JUSTIZIAKO PROFESIONALAK	4. Sarbidea eta garapen profesionala	4.1 Lan-esparrua berriz diseinatzea
	5. Prestakuntza	5.1 Unibertsitateko prestakuntza 5.2 Etengabeko prestakuntza
	6. Berdintasuna eta kontziliazioa	6.1 Berdintasun- eta kontziliazio-plana
 GIZARTE-ERREALITATE BERRIAK	7. Talde ahulen irisgarritasuna	7.1 Irisgarritasuna eta zahartzea 7.2 Irisgarritasuna eta ezgaitasuna
	8. Biktimen eta salatzaileen babesa	8.1 Biktimen babesa 8.2 Salatzailearen babesa
	9. Azterlan sozio-juridiko proaktiboak	9.1 Azterlan sozio-juridiko proaktiboak

2. HELBURUA: JUSTIZIA ZERBITZU PUBLIKOAREN

PROGRAMAK	PROIEKTUAK	AZPIPROIEKTUA
 ANTOLAKUNTZA-ERAGINKORTASUNA	10. Justizia Zerbitzu Publikoaren Antolamendu-eraginkortasunari buruzko Legea	10.1 Justizia Zerbitzu Publikoaren Antolamendu-eraginkortasunari buruzko Legea
	11. Instanzia-auzitegiak eta bulego judiziala	11.1 Instanzia-auzitegiak 11.2 Bulego judiziala
	12. Justizia-bulegoak udalerrietan	12.1 Justizia-bulegoak udalerrietan
 PROZESU-ERAGINKORTASUNA	13. Justizia Zerbitzu Publikoaren Eraginkortasun Prozesalari buruzko Legea	13.1 Justizia Zerbitzu Publikoaren Eraginkortasun Prozesalari buruzko Legea 13.2 Eztabaidak konpontzeko bitarteko egokiak (MASC) ezartzea 13.3 Lineako eztabaiden irtenbidea (ODR)
	14. Exekuzio sistemak	14.1 Exekuzio ereduak 14.2 Aktiboak berreskuratu eta kudeatzeko bulegoa (ORGA)
	15. Prozedura Kriminalaren Legea	15.1 Prozedura Kriminalaren Legea (LECrIm)
 ERAGINKORTASUN DIGITALA	16. Justizia Zerbitzu Publikoaren Eraginkortasun Digitalari buruzko Legea	16.1 Justizia Zerbitzu Publikoaren Eraginkortasun Digitalari buruzko Legea
	17. Legeen eta epaitegien azterketa	17.1 Justiziaren eraginkortasunerako adimen artifiziala 17.2 Kodeketa-batzordea bultzatzea 18.1 Berehalakotasun digitala eta zerbitzu ez-presentzialak 18.2 Fede publiko digitala 18.3 Deslokalizatutako lanpostua eta telana
	18. Segurtasun juridiko digitala	

3. HELBURUA: IRAUNKORTASUNARI ETA

PROGRAMAK	PROIEKTUAK	AZPIPROIEKTUA
 HERRITARRENTZAKO ZERBITZUAK	19. Erregistro Zibilaren eredu berria	19.1 Erregistro Zibilaren eredu berria ezartzea
	20. Herritarrentzako arreta	20.1 Aurretiko hitzordua 20.2 Herritarren karpeta 20.2 Jakinarazpen elektronikoa
	21. Kalitate-sistema	21.1 Kalitate-zigilua 22.1 Giza Eskubideen arloko irizpenen segimendua
 GIZARTE JASANGARRIAK	22. Zuzenbide-estatuaren defentsa	22.2 Zuzenbide-estatuaren bultzada Ebn 22.3 Ustelkeriaren aurkako borroka
	23. Ingurumen-justizia eta egoitza jasangarriak	23.1 Egoitza judizial jasangarriak 23.2 Administrazio-egoitza jasangarriak
	24. Ekonomia eraldatzeko justizia	24.1 Eraginkortasun judiziala enpresa-jarduerarako 24.2 Bigarren aukerarako kaudimengabezia arautzea 24.3 Gordailu eta kontsignazioen kudeaketa eraginkorra
 ERAKUNDEEN KOORDINAZIOA ETA KOHESIOA	25. Kogobernantza justizian	25.1 Kogobernantza-arkitektura
	26. Datuetan oinarritutako justizia	26.1 Datuetan oinarritutako justizia-plataforma
	27. Ekosistema digital elkarreragilea	27.1 Kudeaketa prozesaleko sistema 27.2 Jarduera judizialari laguntzeko aplikazioak

Ezartzea, gobernatzea eta kontuak ematea

Justizia 2030 pixkanaka ezartzen ari dira. Lehen proiektuak pandemia hasi zenetik ari dira garatzen, eta progresibotasun hori indarrean dagoen denbora osoan zehar mantenduko da.

Kogobernantza funtsezkoa da Justiziako Zerbitzu Publikoa hobetzeko, baita Planaren barne-gobernua ere. Autonomia-erkidegoekin elkarrizketa- eta informazio-eremuak zabaldu behar dira. Justizia 2030 etengabe azaldu eta adostuko da Autonomia Erkidegoekin egindako Konferentzia Sektorialean. Gainera, ekosistema digitalaren eta prozesu-kudeaketaren sistemaren kudeaketak kogobernantza-arkitektura sendagoa eskatuko du.

Kontuak honen bidez emango dira:

- Etengabe eguneratzen ari den **webgunea** (www.justicia2030.es). Proiektu bakoitzaren dokumentu teknikoetara eta horien emaitzetara sartu ahal izango da bertan. Estrategia hura hobetzen doan interakzio-prozesu batean eraikitzen da. Dokumentua urtero eguneratuko da, baina aurrekoak argitaratuta mantenduko dira bilakaera ezagutu ahal izateko.
- **Sei hilean behin Gorteetan agertzea**, bilakaeraren berri emateko.
- **Planaren egoera**, aurrerapen nagusiak eta egindako inbertsioak laburbiltzen dituen urteko txostena.





